



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BANDOA

TXAKUR JABEEK BETEBEHARREKO ARAUAK

Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko 101/2004 dekretuak agintzen duena gogorarazi nahi dizuegu, eta betetzeko eskatu:

Dekretuaren 4. artikuluan txakur jabearen edo edukitzailearen betebeharrak azaltzen dira, eta honela dio:

2. Hiri barruko bide eta gune publikoetan, bai eta eraikin kolektiboen gune komunetan ere, **txakurrak kontrolatuta eramango dira** beraien ezaugarrietara egokitutako **kate edo uhal bati lotuta** –gehienez, 2 metrokoa.

Betebehar hori ez betetzea arau-hauste larria izango da animaliak babesteari buruzko Legearen 27.2 h) artikulua arabera.

3. Debekatuta dago **txakurren gorozkia (kaka)**⁴ bide eta plaza publikoetan, haur-parkeetan, lorategietan, eta orohar, apaindurarako eta/edo pertsonen pasadizorako den edozein lekutan uztea. Debeku horri jaramonik ez egitea, arau-hauste larria izango da Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen 34.4 c) artikulua arabera.

4. Kode Zibilaren 1905. artikuluan ezarritakoaren arabera, **txakurraren edukitzailea edo hartaz baliatzen ari dena izango da txakurrak sortzen dituen kalte, galera eta arazoan erantzulea**; baita txakurrak alde egin badio edo galdu egin bazaio ere.

5. Txakurren jabeak edo edukitzaileak behartuta daude eskumena duen organoak eskatzen dien **informazioa eta datuak ematera**.

OHARRA:

Horretarako, **udaletxean** izango dituzue txakur jabeek **txakur kakak jasotzeko poltsak**, eta hauek dagokion zakarontzietara bota behar dituzue.

Denon artean herria txukun mantenduko dugulakoan, eskerrik asko.